

6. IBILBIDEA


BUSTURIA


Irteera-puntua	Zallobanteko (Errigoiti) Informazio-Puntua
Helmuga-puntua	Zallobanteko (Errigoiti) Informazio-Puntua
Ibilbidea	Zallobante Auzoa – Bizkaigana – Gorbiaurreko Baserria – Arkotxa Baserria– Arkotxamendi – Murueta/Arrieta Errepidea – Iratzagorri Basoa – Makazgane Baserria – Esnaola Baserria – Zurbituaga – Alarbin Goiko – Busturia – Osinbaltzaga Goikoa – Jandonipe Baserria – Metxikas Auzoa – Elorrietalanda Baserria – Menditxua Baserria– Zallobante Baserria
Distantzia (km)	22,7
Pilatutako desnibel positiboa (m)	595
Gutxi gorabeherako iraupena	2 h 10 min
Bizikletentzako bidea	% 100
Norantza	Norantza bakarra % 100
Zoru-mota	Bidea/Pista % 73,81, Bide asfaltatua/Zementua % 17,1, Errepidea % 9
Zailtasun-maila	Handia
Bestelako informazioa	<p>Ibilbide hau, Busturiako udalerria gurutzatzen duten pistatik eta basoak zeharkatuz Mapetik Mendiganara doa, inguruko alde politenatarikora igotzeko aukera ematen duelarik. Ibilbidean zehar Landatxuko parajeen ura hartu eta Alarbigokoako burdinola eta Zallobanteko ermita ikusteko parada izango dugu. Errepidetik kontuz ibiltzea eta Metxikako auzoan aske egon daitezkeen txakurrei erreparatzea aholkatzen da.</p> <p>Zallobanteko auzotik Bizkaiganarantz doan errepidetik abiatuko gara. Hemen aldatz behera handian doan pista hartuko dugu eskumarantz. Pista honek baso-eremutik eramango gaitu. Bidegorrira heldutakoan eskumarantz doan bidea hartu. Ondoren, Arkotxatik igarotakoan, Arrieta eta Murueta lotzen duen errepidera helduko gara. Iturridun aisialdigunea aukituko dugu bertan.</p> <p>Errepidetik jaitsiko gara eskumarantz eta ehun metro barru ezkererantz doan desbideraketa hartuko dugu, Mapeko haranean (jaitsiera ona duen eta basogintza-lanekin kontuz izan behar dugun tartea). 11,800 P.K.n Iturbetik jaisten den errepide txikiarekin bat egingo dugu. Eta jaitsiera</p>

txikiaren ondoren (ur-araztegiaren ondoan) Arrietara moduan adierazita dagoen bide txikia hartuko dugu eskumarantz.

Bide honetatik berrehun metro egindakoan, eta etxe txiki bat igaro ostean, arrainaren eta ardoaren ibilbidearekin bat egingo dugu ezkererantz, Aldarbingoikoa auzoraino garamatzana jaitsiera teknikoan. Hemen, Muruetatik Arrietara doan errepidean eskumarantz egingo dugu. Bertatik jarraituko dugu 1,5 kilometrotan zehar eta orain eskumarantz oso gogor biratzen den okergunean ezkeralderantz hartuko dugu, Jandonipe/Metxikas kartela jartzen duen lekuan hain zuzen ere.

Hemendik, inguruko alderik politenetariko batetik igoko dugu Metxikas auzora doan bidearekin bat egin arte. Ibilbidea osatzeko, oso eroso den pistatik jaitsiko dugu Elorrietalandaraino. Hemen eskumarantz biratu, eta aldapa gogorraren ostean Zallobante auzora, ibilbidearen abiapuntura, helduko gara





IBILBIDE 6 - BUSTURIA

IBILBIDEAREN MAPA

IRTEERA PUNTUA ETA HELMUGA PUNTUA: ZALLOBANTE AUZOA (BIZKAIA)

IBILBIDEA: ZALLOBANTE AUZOA - BIZKAIGANE - GORBIAURREKO BASERRIA - ARKOTXA BASERRIA - ARKOTXAMENDI - MURUETA/ARRIETARA ERREPIDEA - IRATZAGORRI BASOA - MAKAZGANE BASOA - ESNAOLA BASOA - ZURBITUAGA - ALARBIN GOIKOA - BUSTURIA - OSINBALTZAGA GOIKOA - JANDONPIE - METXIKA AUZOA - ELORRIETALANDA BASERRI - MENDITXUA BASERRI - ZALLOBANTE AUZOA

KM: 23,5 - **METATUTAKO DESNIBEL POSITIBOA:** 595 M - **IRAUPENA, GUTXI GORABEHERA:** 2 H 10 MIN

BIZIKLETENTZAKO BIDEA: 100% - **NORANZKO BAKARRA:** 100%
ZORU MOTA: PISTA/BIDEA 73,81% BIDE ASFALTATUA: 17,1% ERREPIDEA 9%
ZAILTASUN MAILA: HANDIA.


IBILBIDEAK, ZENBAIT PISTATAN ETA BASOTAN ZEHAR, BUSTURIAKO UDALERRIA ZEHARKATZEN DU MAPETIK MENDIGANARA, ETA INGURUNEKO EREMURIK IKUSGARRIENETAKO BATERA IGotzen DA. IBILBIDEAN ZEHAR, LANDATXUKO PARAJEAN UREZ HORNITZEKO, ETA ALARBIGOIKOAKO BURDINOLA ETA ZALLOBANTEKO ERMITA BISITATZEKO AUKERA IZANGO DUGU. ERREPIDE TARTEETAN ETA METXIKA AUZOAN SOLTE DAUDEN TXAKURREKIN KONTU IZATEA GOMENDATZEN DUGU.

ZALLOBANTE AUZOTIK ABIATUKO GARA, BIZKAIGANE AUZORAKO ERREPIDEK. BERTAN, ESKUINETARA EGIN ETA INGURU OIHANTSU BATEAN SARTUKO GAITUEN PISTA ITXI BAT HARTUKO DUGU (KONTUZ AREKAREKIN). BIDEGORRIRA IRISTEAN, BIDE ITXI BAT HARTUKO DUGU ESKUINETAN. BIDE HORREK, AKOTXA IGARO ONDOREN, ARRIETA ETA MURUETA LOTZEN DITUEN ERREPIDEAN UTZIKO GAITU. BERTAN, UREZ HORNITZEKO JOLASGUNE BAT AURKITUKO DUGU.

ERREPIDEK ESKUINETARA JAITSI ETA, EHUN METRO INGURURA, EZKERRETARA EGIN ETA MAPEKO HARANERA ERAMANGO GAITUEN PISTA BAT HARTUKO DUGU. JAITSIERA POLITA DA, BAINA KONTUZ IBILI BEHARKO DUGU, ZURA ATERATZEKO LANEKIN TOPO EGIN BAITEZAKEGU. 11,800 KP-AN, ITURBETIK JAISTEN DEN ERREPIDE TXIKI BATERA IRITSIKO GARA. ERREPIDE HORRETATIK JAITSIERA LABURRA EGIN ONDOREN, UR ARAZTEGIAREN ONDOAN ARRIETARA IZENENKO BIDE TXIKI BAT HARTUKO DUGU ESKUINETARA.

BIDE HORRETAN BERREHUN METRO INGURU IBILI ONDOREN, ETA ETXE TXIKI BATETIK IGAROTZEAN, ARRAINAREN ETA ARDOAREN IBILBIDEAREKIN EGINGO DUGU TOPO EZKERRETARA. IBILBIDE HORREK ALDARBINGOIKOA AUZORAINO ERAMANGO GAITU (JAITSIERA TEKNIKO). BERTAN ESKUINETARA EGIN, ETA MURUETATIK ARRIETARA ERREPIDEA HARTUKO DUGU. ERREPIDE HORRETATIK 1,5 KILOMETRO INGURU IBILI ONDOREN, EZKERRETARA EGINGO DUGU BIHURGUNE ITXI BATEAN (JANDONPIE/METXIKA KARTELA).

BERTATIK ABIATUTA, INGURUKO LEKURIK EDERRENETAKO BATETIK IGOKO GARA METXIKAS AUZORA DOAN ERREPIDERA IRITSI ARTE. IBILBIDEA AMAITZEKO, PISTA EROSO BATETIK JAITSIKO GARA ELORRIETALANDARAINO, ETA, ESKUINETARA JO ETA ALDAPA GOGOR BAT IGO ONDOREN, ZALLOBANTE AUZORA IRITSIKO GARA, IBILBIDEAREN IRTEERA PUNTURA, ALEGIA.



EUSKADI BTT ZENTROEN MARKATZEKO PLAKAK ○ BU015
EUSKADI BTT ZENTROEN MARKATZEKO ZUTOINEAK □ BU192

GOGOAN IZAN - ERABILI KASKOA - ERRESPETATU OINEZKOEN LEHENTASUNA ETA ZIRKULAZIO ARAU OROKORRAK - ERRESPETATU IBILBIDEEN SEINALEAK ETA ZIRKULAZIO NORANZKOA - EUSKADIKO BTT ZENTROAK EZ DIRA ZIRKUITUEN OKERREKO ERABILERAREN ERANTZULE IZANGO, EZ ETA ERABILTZAILIEN ZUHURTZAGABEKERIEI ERANTZULE ERE - GALDUZ GERO, GOGOAN IZAN SEINALEAK ZENBAKI BATEKIN KODETUTA DAUDELA. DEITU HARRERA PUNTURA ETA/EDO BESTE LAGUNTZA ZERBITZU BATERA, ETA JAKINARAZI ZENBAKIA - TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOAREN BITARTETZ FEDERAZIOAREN LIZENTZIA ATERATZEA **GOMENDATZEN DUGU** (ESKATU INFORMAZIOA EUSKADIKO BTT ZENTROKO LANGILEEI).

EZ AHAZTU - SEINALERIK EZ BADAGO, JARRAITU LEHENTASUNENKO BIDETIK - BAKARRIK IBILI BEHAR BADUZU, ADIERAZI ZER IBILBIDE EGINGO DUZUN HARRERA PUNTUAN - IRITEN AURRETIK, AZTERTU BIZIKLETAREN EGOERA ETA JASO DENBORARI ETA IBILBIDEARI BURUZKO INFORMAZIOA - EZ AHAZTU URA, KONPONKETA OSAGARRIAK ETA SAKELAKO TELEFONOA ERAMAN BEHAR DITUZULA - EZ GUTXIETSI IBILBIDEEN ZAILTASUN TEKNIKOAK, ETA AUKERATU IBILBIDEAK ZURE GAITASUN TEKNIKOAREN ETA FISIKOAREN ARABERA.

KONTUZ - KONTUAN HARTU IBILBIDEETAKO BASO LANAK ETA NEKAZARITZA LANAK - KONTU HANDIA IZAN EHIZA GARAIAN - ERRESPETATU INGURUA - ERRESPETATU ITXITURAK, ETA ITXI BERRIZ IGARO ONDOREN. ERRESPETATU ZONA PRIBATUAK ETA KULTURA ETA ONDARE INGURUNEAK - ERRESPETATU NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA BASO JARDUERAK, INGURUKO BIZTANLE ASKOREN LANBIDEA BAITA - ERRESPETATU INGURUMENA, INGURUKO BIZTANLEAK ETA ANIMALIAK. EZ EGIN ZARATARIK. ERRESPETATU INGURUKO LASAITASUNA, HEGAZTIEK HABIAK EGITEN DITUZTEN LEKUEAN BEREZIKI - EZ BOTA PIZTUTA DAGOEN ZIGARROKINIK ETA POXPOLURIK; AXOLAGABEKERIA HANDIA DA, ETA OSO ARRISKUTSUA - EZ BOTA ZABORRIK MENDIRA. UTZI JOLAS AREETAN EDO HERRIETAN DAUDEN EDUKIONTZIETAN.

GOZATU NATURAZ ZARATARIK ETA PRESARIK GABE.

IBILBIDE 6 - BUSTURIA